

**ENPRESAREN EREDU INKLUSIBO PARTE-HARTZAILEA SUSTATZEKO
JARDUNALDIA / JORNADA DE IMPULSO AL MODELO INCLUSIVO
PARTICIPATIVO DE EMPRESA**

2020-12-03 Vitoria-Gasteiz 03-12-2020

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Egun on eta eskerrik asko.

Miguel Angel Laspiur, Arizmendiarietaren Lagunak Elkartearen presidentea eta Kepa Olivares, ASLE-ren presidentea, ezer baino lehen nire eskerrik beroenak. Alde batetik zuen gonbidapenagatik; baita ere Jardunaldi hau antolatzeagatik.

Gaurko ekitaldian zuzenean parte hartuko duzuen guztioi zuen ekarpenak eskertzen dizkizuegu. Eskerrak ere Jardunaldia “streaming” bidez jarraitzen ari zaretenoi.

Jardunaldi hau beharrezkoa da enpresaren eredu inklusibo parte-hartzailea bultzatzeko; eta, esan dezagun, bizi dugun egoerak eredu berri honen BEHARRA areagotu egiten du.

Pandemiak eragindako une zail hauetan zentzu handiagoa du Jardunaldi honek aztertzen eta proposatzen duen NORABIDEA. Bestek beste eredu hau enpresa berritzaile, lehiakor eta iraunkor baten bermea delako; lurraldera ondo errotua dagoena; gizarte erantzukizun handi batekin jokatzeko duena, non kide guztiek norabide berean egiten duten lan.

La persona es el centro de las políticas públicas en estos momentos de pandemia que vivimos.

La prioridad es garantizar la salud pública, la seguridad y bienestar de cada persona. Junto a ello, debemos ADELANTAR el futuro. Debemos favorecer la reactivación económica y la generación de empleo de calidad, como contribución al bienestar de las personas. “Salud personal y salud económica”, este es el BIEN COMÚN compartido.

Todos los grupos parlamentarios hemos apoyado, de forma UNÁNIME, el impulso a este nuevo modelo inclusivo-participativo de empresa. El Gobierno Vasco y las instituciones públicas compartimos y respaldamos este modelo.

Nuestro Programa de Gobierno compromete el desarrollo de las empresas de economía social, facilitando actuaciones dirigidas a REFORZAR su dimensión, incorporar nuevas personas socias y FOMENTAR la inter-cooperación y el asociacionismo entre las empresas.

El objetivo que alienta esta Jornada forma parte de nuestro ideario.

Gaurko jardunaldia xede honetan aurrera egiteko aukera ezin hobea da. Batetik, eremu pribatuko eragile desberdinak elkarlanean aritzeko hautua erabaki duzuelako. Bestetik, Jardunaldi hau erakundeen arteko lankidetzaren isla delako. Eusko Jaurlaritza, hiru Foru Aldundiak eta Nafarroako Gobernua elkarrekin, beti ere Europar Batasunaren ekonomia sozialaren aldeko ESTRATEGIAREN BAITAN.

Jardunaldi hau eredu bat da: lankidetzaren publiko-pribatua bere bertsiorik onenean.

Ziur naiz, gaurkoan, elkarrekin, beste mugarri bat jarriko dugula enpresa EREDU BERRIA bultzatzeko eta euskal gizartearen ONGIZATEA sustraitzen eta sustatzen jarraitzeko.

Eskerrik asko!